

Xabier Rekalde pelotari dimoztarrak banakako txapelketa nagusiak irabazi ditu aurten

Dimako Txumuluxueta Pelota Klubeko Xabier Rekaldek urte itzela daroa aurten. Hogei urteagaz, buruz buruko pelotari afizionau onentsuena da. Izan be, banaka jokatu diren hiru txapelketa ofizial nagusiak irabazi ditu: Bizkaikoa, GRABNI eta Euskal Herrikoa. Beste txapelketa garrantzitsu batzuetan be txapelak irabazi ditu. **11. orrialdea**



Areatza, Zeanuri eta Zeberioko jaiak ospatuko dira abuztuan

Zeanuriko andramariak izango dira lehenak, hilaren 10etik 16ra; gero Areatzako sanbartolomeak, hilaren 23tik 31ra; eta amaituteko Zeberioko sandoniak, hilaren 29tik urri lehenengoaren 2ra.

Festazaleentzako abuztu oparoa dago aurretik, eskualdeko hiru herritako jaiak ospatuten dira-ta hileon. Aukera parebakoa kultur eskaintzeagaz, kalejira eta erromeriakaz, lehiaketa gastronomikoakaz, umeentzako ekintzakaz, kirol erakustaldi zein txapelketakaz eta leku bakoitxeko tradizionakaz gozatuteko. Gainera, musika talde ezagunak igongo dira oholtzerara: Tropa do Carallo, Xiberoots, Aurora Beltran, Porco Braco eta TOC tartean. **5. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA, UBIDE

BideON Arratian garraio zerbitzuak 2.000 bidaia egin ditu

BideON Arratian garraio proiektuak, lehen bost hileetan, 1.350 bidaia egin ditu 65 urtetik gorako personakaz, 625 bidaia unibersidadeko ikasleak eroanez eta menpekotasuna edo desgaitasuna daukien pertsonen zuzendutako 25 zerbitzu. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA, ZEBERIO

Jai ugari ospatuko dira abuztuan auzoetan

San Bizente, San Adrian, San Justo, San Lorentzo edo sanlontxoak eta Andra Mari dira abuztuaren lehen hamabostaldian auzuneetan ospatutako jaiak. Gero, sanrokeak edo sanbartolomeak ospatuko dira. Danetan ez da egitarau berezirik antolatuta, baina bai batzutan. **5. orrialdea**

IGORRE

Goiko Plazako frontoiko estalgiaren ebazteko aukerea daukie igorretarrek

Igorreko Goiko Plazako frontoia- ren estalgiaren proiektua diseinu fasean dago. Arkitektoek diseinu bi egin ditue eta Igorreko Udalak, galdeketea abiatu dau, gustukoena eregiteko. Urri lehenengora arte, Kultur Etxean sei panel egongo dira informazioagaz eta bertan bozkatu daiteke zein proiektu dan gustukoena. Behin diseinua aukerata, proiektua gauzatzeko lanak lehiaketara aterako ditue.

Diseinu bien arteko desbar- dintasun nagusia, erabilitako materialen aukeraketan dago. **6. orrialdea**

Areatzako jai zorionsuak opa deusueguz!

RENAULT

TALLERES ELEZARRE
Lehendakari Agirre, 22 · 94 631 56 34 · IGORRE
elezarre@telefonica.net

EKIN

LAN PUBLIKOAK
UR ETA SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseekin.com

Literatura txokoa

ALEXANDER WOLFEN MAMUA

Bizitza gorabeheratsua euki eue-neko pertsona dogu Gaito Gazdanov, bizi izan zan sasoia eta lekua halangoxia tokatu jakon eta.

Bizitza-oroitzapenenen kontaketa moduan dago adierazota eleberria.

Nerabegaroko jazokera larri-larriak, lurpeko ur korrontearen moduan, narrazio osoa zeharkatuz daroa egilearen bizitza igaro ahala, etsaia -mamu bihurtuko jakona- hil ez eta, halan izan balitz moduko erru obsesioa, sobietar sasoian Armada Gorria eta Zuriaren arteko gudualdietan gertatua berau, izan be, idazlea atzen honetarikoen alde burukatu zan.

Bikoiztasuna dauka hezurduzatzat: sentipenak eta inguruko gauzen deskripzioa, fisikoa eta

emozinoak, maitemina eragin-dako mundu ikuskera berezia eta hur-hurreko heriotzearen gerizpea igaro izana (Eros eta Tanatos klasikoak, kasurako), andrazko protagonisteara: *...berea zuen bizitza mentalaren eta fisikoaren arteko bereizkuntza...*

Maitemina sentipen peko mundu-ikuskera zelan aldatzen dan ondo baino hobeto azaltzen dau lau lerrotan ezohiko moduan.

Bestalde, esan leiteke errusiar andraren sentipen adierazkortasun eza edo soraio ez-axola deskribatzen dauala: *...Maitasun hotz eta setati batez maite zuen: sentimendu arriskutsu eta indartsua...*

Errusiar arima ospetsuaren isla ete da hango tradizio literario-

tzat jo leitekean idazlan hau? Narratzaileak darabilzan gogoeta eta barne hausnarketak, tantakada filosofikoz bustia: *...Gizakiaren bizitzako gorabeheren segida mirarizkoa da...*, gerrako estres post-traumikoa... hainbat eta hainbat gizakiari atxikitako gai dakar Gazdanovek, berba gitxitan edo paragrafo luzeak josiz.

Bada, gogoeta-hausnarketok dirala-ta, gogaikarritxu eta erretolika izatearen bihozkaidea, hala nola, boxeo burruka kontatzen dauana edo maitalearen sentipenen sakona jakin guran erabili dauan marruzkatzea, halaber, buelta eta buelta gai berberari era obsesiboaz jarduten dauanean.

Eleberria zirkuluaren itxurea beteaz amaitzen da bizitza eta heriotzeaz agertzen diran pertsonaien berbetan islatuz.

Iskander Otxotorena Amua


Gaito Gazdanov

Alexander Wolfen mamua

Itzultzailea: Josu Zabaleta Kortaberria; Gibelsolasa: Iñigo Aranbarri

Igela argitaletxea, 2023

172 orrialde



Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Garagarrilaren 29tik abuztu. 4ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren Setik 11ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 12tik 18ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atubxa Saillburua 1

Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 19tik 25era

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Cometza, Ana. Francisco Kortaberria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea. arratia@bizkaia.org*

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean: 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

* **Adi udako ordutegiari**

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Babesleak:



ZEURE BERBEA

Harremanaren garrantzia

Gure auzoko Juanita joan jaku eta gure bihotzetan tristura handia sentidu dogu. Iñaki, Pilar, Jon, Juanita eta Maite etxe horretan egoten ziranean ingurua alaitasunez beteten eben.

Pilarrek bere izakera bereziagaz ingurua alaitasunez argitzen eban, alaia, berbatia eta maitakorra zalako. Juanita isilagoa zan, baina alaitasun horretan sano gustura sentiduten zan. Urte hareetan momentu zoragarriak pasau genduzan.

Aitatutako laurak hil ziranean gure Juanita gelditu zan. Bera izan da etxe horretako argia. Auzokideak beti bera noz ikusiko egoten izan gara, noz urtengo kanpora eta noz ikusiko bere

aulkian jesarrita beragaz berba egiteko edo laguntzeko.

Oin be, etxeko sarrerara begiratzen dogun bakotxean aulkia hutsik ikusiko dogu, baina guretzat bertan egongo da Juanita.

Ondo zainduta egon da bere seme, errain, loba eta zaintzaileagaz. Gure eguneroko zeregina bera ikustea izan da, beragaz berba egitea eta maitasuna eskaintzea.

Inguruan pasauako momentu onakaz geldituko gara eta beti eurak gogoan izango doguz. Mosu bana etxeko guztioi.

Bizitzaren parte handia Artean pasau dozue, familia aurrera aterateko gogor ekin behar izan dozue, oin, danok batera egoteko ordua heldu jatzue.

Goian bego.

MERTXE EMALDI INTXAURRAGA

ERETXIA

24.000 euro isunetan Arratiako hamar gazteri

2023ko urri lehenengoaren 22an, Aitor Zelaia eta Galder Barbadoren espetxeratzeari salatutako ekimenak burutu genduzan Bilbon eta Gasteizen. Bertan, 133 gazte identifikatu eta Mozal Legea aplikatu, guztira 290.500 euroko isunak ipini euskuetzan. 2.500 eta 1.500 euroko isunak heldu jakuz eta 133 gazteen artean 10 arratiar militanteri be isunak ipini eutsiezan egun horretan. Guztira arratiarrok 24.000 euroko isunak jaso doguz.

Honek, Ernairen egunerokotasuneko jarduna normalidade osoz aurrera eroatea guztiz oztopatzen dau. Errepresino ekonomikoa XXI. mendeko errepresino modu nagusia dala esan ahal dogu eta bide hau hautatu dabe Ernairen jardun politikoa guztiz desagerrarazoten saiatutako. Segurtasun Saila Ernai ekonomikoki ito eta politikoki deuseztatutako egiten dabilen saiakera argia da hau. Desordena publikoak atxikitu eta Mozal Legea aplikauz, antolakundea desagerrarazo gura dabe. "Bide, espazio edo establezimentu publikoetan desordena eragitea edo bide publikoa oztopatzea" egozten deuskue. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak modu konziente batean hartutako ebatzia da hau eta Euskal Herriaren askapen prozesuan aurrerapausuak emoten segidutea oztoparazo gura dabe.

Egoera honen aurrean, Eusko Jaurlaritzaren kontrako 133 helegite sartu doguz epaitegietan. Honek, Ernai gazte antolakundearen jarduna parte batean mugatuko daua bada kigun arren, argi daukagu hau dala bide egokiena. Hau holan, Segurtasun Sailaren kontrako bide juridiko bat zabaldu eta kasu hau aurrekari ez bihurtutako ahaleginetan gabiz. Mozal Legearen aplikazioa deuseztatu eta Eusko Jaurlaritzak egoeraren ardura hartzea da



ARRATIAKO ERNAI

gure helburua.

Gazteria independentistea inoz baino indartsuago dago. Euskal Herriaren askapen prozesuan aurrerapausuak emoten segiduko dogu. Ernai ez dabela gura erakutsi deuskue eta honen aurrean Ernai indartutea baino ez jaku geldituten. Ez dabe gazteria independentistea gelditutea lortuko eta hau argi erakustea toketan jaku. Oin arte egin dogun moduan, apurka-apurka aurrerapausuak emoten segiduko dogu.

Horregaitik, hurrengo urratsa urri lehenengoaren 8an emongo dogu. 13:30ean Donostian manifestazio nazionala deitu dogu gazte burrukea geldiezina dala erakusteko. Horregaitik, Ernaitik dei egiten dogu egun horretan danon babes eta inplikazioagaz Donostiako Bulebarreko kaleak betetako.

Donostiara hurbildutako autobusa ipiniko dogu Igorretik. Apuntatu autobusean Axular Herriko Tabernan 10 euroren truke.

Isunei aurre egiten lagundu eta ordainduteko kontu korronte bat dago zabalik, bertan "dohaintza" kontzeptuagaz ekarpen ekonomikoa egiteko. Kontu korrontea: ES14 3035 0108 01 1080050918. Horrezaz gainera, jantzi mertxana eta segidu alkartasun keinuak egiten!

Donostian ikusiko dogu alkar. Bat eginaz independentziara!

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (L). Kale berbakunea sustatu guran

GOITIBEHERRAK

-Enterau **haz**? Aurten Igorreko sankristobaletan goitibehera jatsiera antolatu **yauriek**!!

-**Ezeik** esan!! Lehenagoko erara?? Benetan be, ondo **jauk** baten bat galzorian **yazaken** gauzei atzera indarra emoten ahalegindutea!

-Herrietako jaietako presupuestu gehiena kontzertuetarako izaten **dok** beti, eta jaiak gauza desbardinez osotutea **dok** ona.

-Bai! Ondo **ilegokek** beste era batera banatuko **balitzok** presupuestu hori.

-Neuk be halantxe pentsetan **joat**, gustu guztietarako zeozertxo...

-Halanda be danon gustura gurata be **eztok** izango...



LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIA

Gestinoak

Hamaika izerdi egin dot nik bankuagaz gestinoren bat egin behar izan dudanean. Adi-adi egon arren, berba teknikoakaz hasten diranean, nire eretxian, bankukoek uste dabe zuk ulertu egiten deutzazula, eta zuk, hitz horreek holango normaltasunagaz entzunda nahitaez jakin beharrekoak dirala pentsauta, baietz egiten dozu buruagaz. Askotan, hutsunez betetako alkarrizketea sortzean da, eta erdiaren erdia ulertuta zabalzen dozu kalerako atea.

Aurrean daukazun personea robota balitz lez irudikatzen dozu; uste dozu bardin jakola zure bizitza, ez dauala ezer sentiduten hil amaierara ailegetako egin behar dozuzan txiribueltak ikusita. Seguru zagoz kapaza dala egundoko hoztasunagaz zure diru apurrentzat konponbide magikoa, mobimentu akats bakoa, pentsetako.

Era horretako gestino bat egitea suertau jatan aurreko egu-

nean. Eta desabantaila hutsean, gainera. Bankuko adituak bi; kalleko ezjakina bat. Zelan aituko neuntsen biri, baten hariari justu-justu segiduteko kapaza banintzan? Tensinoan joan nintzan hitzordura, artega, serio, nire buruaren eta nire zirkuntantzien gaineko kontrola neuk neukala erakutsi guran edo.

Bulegoa grisa zan, argi natural bakoa. Bata barrez egoan; beste serio. Segiduan konturatuko dira fatxada hutsa nazela kontu honeetarako, pentsau neban. Baina bulego haretan zeozer pasau zan. Emozinoak azaleratu ziran, negar-antuluak atera ziran, eta hango hirurek plano berera salto egin genduan. Ez ginan bi eta bat, ezpada hazur eta maminezko hiru persona, bakotxa bere gorabeherakaz, bere bizi-moduagaz, bere motxileagaz.

Hori ekarri gura neban le-rootara. Gaur egun ez gara kontziente aurrean daukaguna, supermerkaduan, bankuan zein medikuaren konsultan, gure antzekoa dala barru-barrutik, gure arazoen eta gure buruko minen antzekoak daukazala. Bardin jaku gure albokoari zer pasetan jakon. Sano erraz, errazegi, epaitzen dogu. Personarik zorrotzenak be badauka alde humanoa. Mundu hobe eta solidarioagoa eraiki gura bado-gu, praktikau daigun enpatia supermerkaduan, bankuan zein medikuaren konsultan.

ZERTZEAN



EKHI ZULUAGA

Gaia jarrita: "Eurokoea"

1

Frantzia, Italia eta Ingalaterra dan-danetan dirue da aurin liderra hori da txanpon horren aurpegi okerra futbolearen ez al zan dana hain okerra?

2

Danak ospatan dabiz Eurokopa plazan bea pilo bat jente hiltzen dabil Gazan horren kontra tristea ze gitxi doazan kanbiauko zan Europan gertatuko bazan.

3

Hasi dire *hooligan* zoroen borrokak arrazoi lez dekiez edandako kopak txapelketa badabil estututen sokak zenbat hasarre sortzen dauzen Eurokopak.

4

Beti egoten dire hiru-lau makarra bea jente ona dau be bai barra-barra nahiz ta emoten dauen motza ta zakarra futbolearen guztie ezta bez hain txarra.

BEGI TXINDORRA

Garazi Santos BEGITUKO irakurlea Vietnam-en izan da oporretan eta bertatik, Tam Coc-etik hain zuzen, argazkia bialdu deusku irakurleakaz bere esperientzia alkarbanatuteko. Tam Coc-en itzulpena, "hiru kobazulo" da eta turistak, bertoko andre gidatutako barkuetan bisitetan ditue, errekea hatx-zuloetan sartzean da-ta. Hang Ca, Hang Giua eta Hang Cuoi dira koba magiko honeek.

Inguruko kondairek kontetan dabenez, dragoi bat bizi ei zan Ngo Dong errekearen inguruan eta hau inguratzen daberen kareharrizko mendiak ziran honen bizitokia. Dragoiak baina, alde egin behar izan eban eta ez eukan bere altxorra non gorde. Inoz ikusi bako distirea eukien hiru perla, hain zuzen be. Holan, harria zulatu eban erreka bazterretan, bere altxor preziaua ostenduteko. Altxorraren atzetik ei dabiz oindino, BEGITUKO irakurleak?



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igoire-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Abuztuaren 10ean hasi eta 16an amaituko dira Zeanuriko andramariak

Zapatu iluntzean herriko komertzioetako andrek txupinazoa bota orduko, jai luzeak hasiko dira zeanuriztarrentzako. Lehen gaua Chulería, joder!, Tropa do Carallo eta Gora Herria taldeek girotuko dabe.

Erredakzioa

Lehen astegoienean txupinazoaz, kontzertuez eta San Lontzoko jaienez gozatu ostean, aste barruko egitarau potoloan murgilduko da Zeanuri, egunero, herriko txistularien Hiru Zubiak kalejireagaz itxartu ostean. Astelehenean umeak izango dira protagonista puzgarri, kart eta bits artean. Martitzenean jubiladuentzako barauskarria eta pelota partiduen inguruan batuko da jentea. Eguaztenean barriz, Gorbeira igoerera, fronteniseko finalak, herri bazkaria eta playback-ak egongo dira, besteak beste.

Hurrengo egun bietan Andra Mari eta San Roke ospatzen dira eta meza egongo dira. Meza ostean, egunean musika izango da protagonista: gaiteruak, AIKOren

erromeria eta Fito & Fitipaldis-en tributo taldea dagoz. Barikua ostera, Sukaldarien Eguna da eta Paella, Tortilla eta Postreen Txapelketak egongo dira eta arrastian, karta-jokoak.

Abuztuak 10, zapatua

Egunean zehar, San Lontzoko jaiak. 20:30ean, txupinazoa komertzioetako andren eskutik eta Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 22:30ean, kontzertuak: Chulería, joder!, Tropa do Carallo eta Gora Herria erromeria.

Abuztuak 11, domekea

Egunean zehar, San Lontzoko jaiak.

Abuztuak 12, astelehena

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:30ean, umeentzako puzga-

riak eta kart-ak. 17:00etan, bits jaiak. 17:00etan, Zeanuriko V. Arraza Libreko Ardi-Txakur Txapelketea Torreko soloan. 19:30ean, Orain Bi zirkuaren Mute ikuskizuna.

Abuztuak 13, martitzena

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 12:00etan, haur eta gazteen-tzako Txinbera Lehiaketea Torreko soloan Zeanuriko Basurde Ehiza Elkartearen eskutik. 13:00etan, jubiladuen barauskarria plazan, herriko txistulariek girotuta. 18:00etan, Zeanuriko Pelota Txapelketako finalak. 20:00etan, Barsanti Konpainiaren Kale gorrian antzezlanak. 22:00etan, kantaldia Bostak eta Laurdenak taldeagaz.

Abuztuak 14, eguaztena

08:00etan, Gorbeira igoera. 11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:30ean, Frontenis Txapelketako finalak. 15:00etan, herri bazkaria (izen-emotea Jubiladuen tabernan). 18:00etan, umeentzako DJ Kaktus. 19:30ean, poteo musikatua. 22:00etan, Playback Txapelketea eta erromeria Gautegun taldeagaz.

Abuztuak 15, eguna (Andra Mari eguna)

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:30ean, meza nagusia Andra Marin. 12:30ean, gaiteru eta erraldoiak. 14:00etan, omenaldia herriko gaiteruei. 18:00etan, erromeria AIKO

taldegaz. 22:30ean, kontzertua: Buen Cas-tigo (Fito & Fitipaldis tributoa).

Abuztuak 16, barikua (San Roke eguna)

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, Sukaldarien Egune-rako izen-emotea. 11:30ean, meza nagusia Andra Marin. 14:00etan, Paella, Tortilla eta Postreen Txapelketetako aurkezpenak. 14:30ean, Paella, Tortilla eta Postreen Txapelketako sari banaketea. 17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak. 20:30ean, txokolatea eta txurroak. 21:30ean, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 22:30ean, erromeria Bidean taldeagaz.



ARRATIA, ZEBERIO

Auzo eta ermita inguruetan jai ugari egongo dira abuztuan

Artaungo San Bizente, Argiñaoko San Adrian, Otzerinmendiko San Justo, San Lorentzo edo sanlontxoak Murtatzen, Azurrekan, Zeanurin eta Zeberioiko Elizondon dira abuztuaren lehen hamabostaldian auzuneetako ermiten inguruan ospatzen diran jaiak. Gero, Andra Mari Igorren eta Zeberioan, San Rokeak Olazabal eta Bedian edo sanbartolomeak ospatuko dira Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Erredakzioa

Jai honeetan berezitasuna izaten dabe auzoetako ermitetan egingo diran mezak, askotan barauskarriak eta musika be egongo dira ospakizun erlijiosoetan. Baina horrezaz gainera, auzo batzuetan bestelango ekintzak be antolatu dira: karta-jokoak, lehiaketa gastronomikoak, herri-kirrol erakustaldiak, bola-jokoa, erromeriak eta kontzertuak.

Artaungo jaiak (Dima)

Abuztuak 3, zapatua

18:30ean, txupinazoa. 18:30, Lourdes Soraluze XV. Bola-joko Txapelketea. 20:00etan, txitxi-burduntzia.

22:00etan, erromeria Bilbao anaiakaz.

Abuztuak 4, domekea

12:00etan, umeentzako jolasak. 18:00etan, herri-kirrol erakustaldia. (Azkoran Irati Astondoa, Aitzol Atutxa eta Julen Larrea; lasto altxetan, botaten eta ingudean: Jon Loiola eta Jose Martin Bustinza "Tubi"). 20:30ean, Tortilla Txapelketea. 21:00etan, Bilbao anai trikitalariak, mozorro erakusketea eta errifearen zozketea. 22:30ean, txokolatea.

Otzerinmendiko San Justo jaiak (Zeanuri)

Abuztuak 3, zapatua

14:30ean, auzo bazkaria.

16:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.

San Adrian eguna (Zeberio)

Abuztuak 3, zapatua

12:30ean, mezea; ostean, barauskarria.

Abuztuak 4, domekea

12:30ean, mezea; gero barauskarria eta txistulariak. 14:00etan, Tortilla eta Paella Txapelketak. 17:30ean, andren bola-jokoa; gero gizonen bola-jokoa.

Azurrekako jaiak (Lemoa)

Abuztuak 10, zapatua

12:30ean, mezea San Lontxon. 13:00etan, trikitalariek girotutako

barauskarria. 13:30ean, erromeria. 18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

San Lorentzo (Bedia)

Abuztuak 10, zapatua

12:00etan, mezea Murtatzen; gero, barauskarria eta trikitalariak. 17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

Udako jaiak (Igorre)

Abuztuak 15, eguna

Andra Mari eguna

12:30ean, mezea. Ostean, trikitalarien kalejireak. 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan. 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak Bidebarrin. 17:30ean, Igel Txapelketea Bidebarrin. 19:00etan, erromeria Berritzu taldeagaz Bidebarrin. 19:30ean, txokolatea.

Abuztuak 18, domekea

17:30ean, Bizkaiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako bigarren jardunaldia Olabarriko landan.

Abuztuak 25, zapatua

Futboleko XXXVI. Igorre Saria Urbietan. 17:00etan, Arratia-Bermeo; 18:00etan, Bermeo-Aurrea de Vitoria; 19:00etan, Arratia-Aurrera de Vitoria eta 20:00etan, sari banaketea.

Olazabalgo jaiak (Dima)

Abuztuak 15, eguna

Andra Mari eguna

12:30ean, Txakoli Eguna: txakolina, pintxoak eta musika.

Abuztuak 16, barikua

San Roke eguna

09:30ean, urtekera Ilunbera. 12:00etan, meza nagusia. 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea. 16:30ean, Umeen Bola Txapelketea eta jolasak. 17:30ean, bits jaiak eta umeentzako baloiak. 19:00etan, Tortilla Txapelketea. 20:00etan, errifen zozketea eta txokolatea. 20:30ean, umorezko bakarrizketea.

Abuztuak 17, zapatua

San Roke Txiki eguna

12:00etan, mezea. 14:00etan, auzo bazkaria.

San Roke (Bedia)

Abuztuak 16, barikua

12:00etan, mezea San Roken. Gero, barauskarria eta trikitalariak.



IGORRE

Datorren ikasturterako izango dabe gazte igorretarrek Gaztelekua

Erredakzioa

Igorreko Udalak garagarri hasieran jakinarazo ebanez, Gaztelekua obrak hasita dagoz eta espero da udan zehar amaituta egotea. Beraz, datorren ikasturterako izango dabe gazteek Gaztelekua. Olatz Urkiza alkateak adierazo ebanez, "lagunak egoteko eta jolasteko biltoki egoki eta atsegin" bat egitea da helburua eta horretarako, udaletxe azpiko lokal bat egokituko da. 55.000 euroko inbersioa egin dau Udalak proiektu honetarako.

Gaztelekuak gela desbardinak, komunak, billarra, futbolina, telebista eta mahai-jokoak izango ditu, besteak beste. Holan, "udalerriko gazteen eskaeretako bateri urtenbidea emotea" da helburua, alkateak azaldu ebanez. Izan be, mahai gainean urte asko darozan proiektua da gaztelekuarena. Atzenez, udaletxe azpian egongo da, frontoi eta rokodromoagaz batera. Honek, "herriko plazan

bizitza soziala suspertuko" dauala defendiduten dau Urkizak.

Atzean geratutako proiektua

Aurreko agintaldietan, EH Bilduk be Gaztelekua egiteko asmoa agertu eban eta martian, udal hauteskundeen aurretik, aurkeztu eban proiektua. Lehendakari Agirre kaleko 13 eta 17 portaleen azpiko lokaleko 800 metro karratu eta erreka bazterreko lursaileko 1.300 metro karratu hartzean ebazan Gaztelekuearen proiektuak. Halanda be, udal gobernuaren aldaketeagaz, EAJ bere proiektua eroan dau aurrera.



LEMOA

Disuasino-aparkalekua eregiko da estazino inguruan

Erredakzioa

Bagilaren 26ko Bizkaiko Batzar Nagusiek egindako saioan Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahaldu Nagusiak jakinarazo eban Metroaren 5. linearen plangintzearen barruan, Lemoan aparkaleku bat egiteko asmoa dagoala. Lemoako Udalak, udal boletinean berretsi dau proiektua baina Esther Iturrioz alkateak BEGIRURI azaldu deusanez Udalak ez daki non egingo dan, zenbat plaza izango dituan eta noizko zabalduko dan aparkalekua, "aztertzen dabiz".

Bizkaiko Foru Aldundiak eregiko dau trenaren erabiltzaileek ibilgailu pribadua aparkatu eta herriguneetara garraio publikoan

joatea buztartuteko aparkalekua. Holan, Arratiako eskualdeak daukan mobikortasun beharrari erantzun gura jakola baieztatu eban Etxanobek. Arratiarrek bertan aparketako aukerea izango dabe, Bilbora metroan edo Durangaldera zein Busturialdera trenen geltzeako.

Honek, beste aparkalekuen eta batez be Etxebarrikoaren "plazaren erabilgarritasuna hobetzea" ekarriko dau. Bizkaiko Foru Aldundiaren bosgarren disuasino-aparkalekua izango da Lemoakoa. Besteak Ibarbengoan, Leioan, Ansio-BEC-en eta Etxebarrin dagoz. Atzen urtean, 344.000 ibilgailu erabili ditue plaza honek, BFAren datuen arabera.



IGORRE


Igorretarrek udaletxe alboko frontoirako estalgi diseinu biren artean aukeratu ahal dabe

Aspaldiko asmoa da Igorreko Goiko Plazako frontoiaren estalgi, eta oin, diseinu fasean dago proiektua.

Erredakzioa

Arkitektoek diseinu bi egin ditue eta Igorreko Udalak, galdeketea abiatu

dau herritarren artean, gustukoena eregiteko. Urri lehenengoan zehar, Kultur Etxean sei panel egongo dira, informazio guztiagaz eta



bertan bozkatu daiteke bakotxaren gustukoena. Behin diseinua aukeratu, proiektua gauzatzeko lanak lehiaketa publikora aterako dira.

Diseinu bien arteko desberdintasun nagusia, erabilitako materialen aukeraketa dago. Bata zur ijertuko habe kurbatuak egingo dago eta besteak, metalezko egitura karratua dauka. Kasu bietan estalgiak sandwich panelak egingo dira eta argia pasetan ixteko, polikarbonatozko xafak izango ditue. Horrez gainera, soinua xurgatzeko panelak izango ditue estalgiak, ekitaldien akustikea hobetze aldera.

Izan be, euria danean kirol egiteko aukerea emoteaz gainera, asmoa bertan ekitaldi eta ikuskizun desbardinak egin ahal izatea da. "Urte osoan zehar frontoiaren antolatu beharreko jarduerak asko zabalteko aukerea emongo deusku", dino Olatz Urkiza alkateak. Frontoi bakarrik ez, alboko umeentzako jolasgunea be tapauko dau estalgiak. Hau, familien "eskaera historikoan" erantzuna emoteko izan dala adierazo dau alkateak, "euri egunetan be (jolasgune) honeetaz gozatu ahal izateko".

LEMOA

LEINN graduako ikasle talde batek hartu dau ugerlekuetako tabernea

Aurtengo udan, Lemoako ugerlekuko tabernako lizitazioa gazte talde batek dauka. Hogeitun inguruko gazteak dira eta ikasketa arrazoiengaitik egingo dabe lan tabernan, izan be Mondragon Unibertsitateko LEINN Ekintzailtza, Berrikuntza eta Lidergoa graduako ikasleak dira.

Erredakzioa

Karrera hau, "egiten ikasi" metodologian oinarritzen da eta bertan, ikasleek enpresa bat sortzean dabe taldeka. Zezeilean, hilabete bidaia egingo dabe New Yorkera ekintzailtza proiektu bat aurrera eroteko. Bidaia finantziari ahal izateko hartu dabe tabernea.

Tabernan ohiko edari eta gozokiez gainera, zerbitzu asko emon ten ditue. Irabiakiak, hanburgesak, pizzak, natxoak, txopitoak, patatak eta abar dagoz. Baina taberna normal bateko zerbitzuak bakarrik ez, ekintza ugari antolatutea da ikasleen asmoa. Besteak beste, udan zehar kirol txapelketen eta pelikulen aire zabaleko proiektuak, ikuskizunak eta umeentzako

Nitton Company

Nitton Company da Lemoako ugerlekuetako tabernea hartu dauan LEINN graduako taldea, hamasei ikasle osotuta. Honen bitartez, "gaur egungo arazoei urtenbidea emoteko, gizartearentzako inpaktu positiboa" daben proiektuak garatu behar ditue eta graduari aurrera egiteko diru-sarrera minimo batzuk lortu behar ditue. Nitton Company-k, Lemoako taberneaz gainera beste proiektu batzuk ditu martan: kirol txapelketen antolaketak, drogak botatea eragotzeko basuentzako tapak, gitxiago kutsatzeko ur botilak eta Berlingo bigarren eskuko modaren inguruko dokumental bat, besteak beste.



ZEBERIO

Abuztuaren 29an hasiko dira sandoni jaiak

Bost egunez, urri lehenengoaren 2ra arte, murgilduko dira zeberioztarrak aurtengo jaietan musika, gastronomia, kirol, jolas eta azoka artean.

Erredakzioa

Zeberioko sandoni jaiak hilaren 29an, eguena, hasi eta urri lehenengoaren 2ra arte, astelehena, ospatuko dira. Txupinazoa Zeberioko Gazte Elkarteko kideek botako dabe, urte osoan zehar Zeberio girotzeko antolatuten dabean ekintzengaitik eskerrak emoteko. Jarraian egingo dau eztanda jaiak, Adiskideak taldearen fanfarria eta herri afaria egingo dira txupinazo egunean.

Hortik aurrera, ekintza ugari antolatu ditu jai batzordeak: umeentzako jolasak, kalejirak, kantaldiak, kontzertuak, txaranga, jubiladuen bazkaria eta karta-jokoak, eskupelota partiduak, bizikleta martxea, lehiaketa gastronomikoak, mezak, azokea, herri-kirol erakustaldia eta baba-jana. Egunero, egun osoan egongo da sandoniakaz gozatuteko aukerea, adin eta gustu guztienez egitarauari esker.

Abuztuak 29, eguena

19:00etan, txupinazoa eta Adiskideak fanfarria.
19:30ean, limonada dastaketea.
21:00etan, herri afaria.
23:00etan, Adiskideak fanfarria.

Abuztuak 30, barikua

12:30ean, umeentzako jolasak.
13:00etan, kalejirea Etxebarria aita- seme trikitilariakaz.
15:00etan, jubiladuen bazkaria

eta gero, Mus, Tute eta Briska Txapelketak.

18:00etan, esku-pelota partiduak.
19:30etan, Latuna Bando txaranga.
23:00etan, erromeria Nonbait taldeagaz.

Abuztuak 31, zapatua

10:30ean, Asel Ozerinjuregi Bizikleta Martxea.
12:30ean, Bilbao anai trikitilariak.
14:00etan, Makailao, Tortilla eta Paella Txapelketak.
18:00etan, umeentzako jolasak.
19:00etan, Zutik elektrotxaranga.
21:30ean, kontzertuak: Chuleria joder!, Porco Bravo, TOC eta Akerbeltz erromeria.

Urri lehenengoak 1, domekea

10:00etan, azokea.
13:00etan, mezea.
13:30ean, kalejirea herriko albokariakaz.
14:00etan, herri-kirolak.
17:00etan, kantaldia Gora Musika taldeagaz.
19:30ean, jota nafarrak Voces Riberas taldeagaz.

Urri lehenengoak 2, astelehena

12:30ean, umeentzako jolasak.
13:00etan, Laura Orueren aldeko mezea.
13:00etan, kalejirea Etxebarria aita- seme trikitilariakaz.
15:00etan, baba-jana.
18:30ean, profesional eta profesional ohien esku-pelota partiduak.

AREATZA

Billaroztarrak 9 eguneko jai giroan murgilduko dira abuztu amaieran

Hilaren 23an hasi eta 31n amaituko dira Areatzako jaiak. Ohiturea danez, aurtengo jaietan be ez dira faltauko txotxongiloak, erraldoiak, buruhandiak, txistulariak, gaiteroak, Areatzako Banda eta zelan ez, tanborraea.

Erredakzioa

Egunez, ekintza ugari antolatu dira adin guztietarako. Musikearen aldetik, txaranga eta kalejirak egongo dira. Lehiaketa gastronomikoak be egongo dira, paella, tortilla eta makailaoa hain zuzen be. Kirolak be izango dau bere lekua, esku-pelota eta pala partiduak jokatuetez gainera, herri-kirol erakustaldia egingo da. Hirugarren adinekoentzako, Kittu taldeagaz girotutako kopautxo berezia egongo da astelehenean eta umeentzako, puzgarriak eta bits jaia egongo dira martitzenean.

Gauetz oster, XXIX. Playback Lehiaketeaz gainera, kontzertu, erromeria eta DJ-ak izango dira nagusi: Gaitegun, Altxa Porru eta Mugi Panderoa erromeriak, DJ Feli, Chuchin Ibañez & Garibaldi Band, Aurora Beltran, Andoni Ollokiegi, Zilibito Records, Xiberoots eta MJ Potota. Gainera, kontzertuak be egongo dira Lamine-txe Gaztetxean.

Txupina aurten Lamino Kirol Klubeko kideek botako dabe.

Abuztuak 23, barikua

14:00etan, txupinazoa. Jarraian, Txotxongilo, Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.
18:00etan, Safara Percussion batukadea.
20:00etan, Salbe herrikoia: Hilario Slavaren *Salve Regina* eleizan.
22:30ean, XXIX. Playback Lehiaketea.
00:00etan, erromeria Gaitegun taldeagaz.

Abuztuak 24, zapatua

11:30ean, txistularien kalejirea.
12:00etan, meza nagusia.
12:45ean, txistularien kalejirea.
14:00etan, kalejirea Kittu taldeagaz.
18:00etan, eskupelota partiduak.
21:30ean, erromeria Altxa Porru taldeagaz.
00:30ean, DJ Feli.
02:30ean, txokolate jana.

Abuztuak 25, domekea

12:30ean, herri-kirolak plazan.
13:30ean, Tabernen arteko Pintxo Lehiaketea (txartelak 16:00etan batuko dira).

17:00etan, Tute Txapelketea.

21:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua Aldapeko Latin Jazz-egaz batera plazan.

Abuztuak 26, astelehena

12:30ean, arimen aldeko mezea.
13:30ean, hirugarren adinekoentzako kopaua eta musikea Kittu taldeagaz.
16:00etan, Briska Txapelketea.
17:30ean, pala partiduak.
20:30ean, Chuchin Ibañez & Garibaldi Band taldea.

Abuztuak 27, martitzena

11:00etan, umeentzako puzgarriak.
13:00etan, bits jaia.
18:00etan, umeen playback-ak.
19:30ean, Zumba herrikoia eta gero, kolore festa.
21:00etan, Aurora Beltranen kontzertua udaletxeko arkupeetan.

Abuztuak 28, eguaztena

14:30ean, Makailao Txapelketearen aurkezpena.
18:00etan, Rally Umoristikoa.
22:00etan, kontzertuak Lamine-txe Gaztetxean.

Abuztuak 29, eguena

13:00etan, Igel Txapelketea.
16:00etan, Mus Txapelketea.
20:00etan, Tortilla Txapelketearen aurkezpena.
21:00etan, afari herrikoia.
22:00etan, Andoni Ollokiegi.

Abuztuak 30, barikua

13:45etik 14:30era, Paella Lehiaketearen aurkezpena.
18:00etan, olinpiadak.
20:00etan, Joselontxos Txaranga.
23:00etan, kontzertuak: Zilibito Records eta Xiberoots; ostean, MJ Potota.

Abuztuak 31, zapatua

18:00etan, Danborrada Txikiaren kalejirea.
22:30ean, kuadrillen, Areatzako Danborradaren eta Areatzako Bandaren kalejirea eta su artifzialak.
00:00etan, erromeria Mugi Panderoa taldeagaz.
02:00etan, Areatzako Danborradaren bigarren bueltea; jarraian, erromeria.
Jaien agurra Lamino Kirol Klubaren eskutik.



Jai batzordeak eta
Areatzako Udalak
jai zoriontsuak opa deutsuez

Ondo pasau jaietan!

BIDEON ARRATIAN

BideON Arratian garraio zerbitzuagaz 2.000 bidaia egin ditue arratiar eta ubideztarrek

Zerbitzua martxan ipini eta bost hilebetera, balorazinoa egin dau Arratiako Udalen Mankomunitateak eta harrera ona izan dauala esan daiteke: 2.000 bidaia egin dira eta erabiltzaileen balorazinoa, bostetik 4,9koa izan da.

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren 900.000 euroko finantziarazinoagaz ipini zan martxan zezeilean BideON Arratian, inguruko taxi gidariakaz egindako eskaripeko garraio zerbitzua. "Denpora errealean, ibilbideen eskaerea ibilgailu motara eta erabilgarri dagozan jesarleku kopurura egokituz, ibilbideak optimizauz eta erreserban eskatutako lekualdatze premia bereziak egokituz" gauzatu eban proiektua Celering enpresek eta martxan ipinita, bere helburuak betetan hasi da zerbitzua.

Hasieran Arratiako Udalen Mankomunitatea osotuten daben udalerritan (Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanuri), uriguneetatik kanpo bizi diran 65 urtetik gorako personak herrietara hurbilduteko ipini zan martxan zerbitzua. Gero, unibersidadeetako ikasleak Leioako EHUko kanpusera eta Bilboko kanpusera hurbilduteko aukerea zabaldu zan. Atzenekoz, adinekoentzako Galdakao-Usansolo Ospitalera zein Galdakao anbulategira hurbiltzeko zerbitzua gehitu jakon, bai eta menpekotasun zein desgaitasun egoeran dagozan herritarrek hau erabilteko aukerea.

Beharizan honeek proiektuaren diseinu fasean egindako galdeketearen bitartez identifikau ziran eta garatuz joan dira denporeagaz. Gainera, zerbitzuaren "helburu sozialagaz" bat eginda, Arratiatik urtetan ez diran bidaiek euro bateko prezioa daukie eta gainontzekoek 1,5 eurokoa.

Zerbitzuak gehituta eta gitxika-gitxika BideON Arratian zerbitzua arratiar eta ubideztarren artean ezagunagoa egin dan bitartean, gora egin dau denporeagaz erabilereak. Holan, zezeiletik bagilera, 2.000 bidaia egin dira zerbitzu honen bitartez. Hau gehien erabilten daben erabiltzaileak 65 urtetik gorako herritarrek dira; 1.350 bidaia egin ditue, %67,5a. Ikasleen partetik be egin dira bidaia asko, 625, hau da %31,25a. Menpekotasun edota desgaitasun egoeran dagozan erabiltzai-

Zezeiletik bagilera, 2.000 bidaia egin dira zerbitzu honen bitartez.

Hau gehien erabilten daben erabiltzaileak

65 urtetik gorako herritarrek dira; 1.350 bidaia egin ditue, %67,5a

BideON Arratian-en batz besteko notea bost puntutik 4,9koa da



Maria Begoña Ugalde eta Luis Maria Etxezarraga erabiltzaileak goian eta Ainara Ortuondo ikaslea behean.

leak dira gitxien, 25 bidaia egin ditue, %1,25a hain zuzen be.

Datu honeek, bidaien jatorri eta helmugetan islatzen dira. Igorre, inguruko zerbitzu gunea nagusia eta biztanle aldetik herri handiena, da bidaiarien helmuga zein jatorri nagusia, ia herena. Honen atzetik, Usansoloko ospitalea dago bigarren postuan. Helmugei jagokonez, unibersidadeetarako bidaiek %21a dira baina buelta egiteko, ez da zerbitzua ia erabilten. Beste helmuga eta jatorriak, gainontzeko herriak dira, Dima


eta Zeanuri batez be. Hau da, herrigunetik kanpo auzotar asko bizi diran herriak. Lemoan barriz, inguruko bigarren populazino gunea izanda be, esan daiteke BideON Arratian zerbitzua ez dala askorik erabilten. Izan be, garraio publikoak konexino gehiago ditu bertan eta halako zerbitzua, ez da hain beharrezkoa ikusten.

Erabiltzaileen balorazinoa


BideON Arratian zerbitzuaren lehen fasean, AUM-ek erabiltzaileen balorazinoak be batu ditu

eta "bikain" balorau dabela dino. Izan be, arlo desbardinaren inguruko galdeketea egin ostean, BideON Arratian-en batz besteko notea bost puntutik 4,9koa da. Nota onena, Igorreko Lehendakari Agirre kalean dagoan bulegoaren arretari emon deusie erabiltzaileek, bostetik bostekoa. Zerbitzuari bere osotasunean eta bidaiatzeko erabilitako ibilgailuen gainean egindako balorazinoa oster, bostetik 4,9koa izan da kasu bietan. Atzenik, gidariei bostetik 4,8ko notea emon deusie.


Bidaia kopurua




Erabiltzaileen balorazioa



Bidaien jatorria



Bidaien helmugea



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115**
eta inigoirua@begitu.eus

TXIRRINDULARITZEA

Gaizka Lopez arabarra urten zan garaile Bizkaiko Kopako Igorreko lasterketan

Erredakzioa

Garagarrilaren 6an jokatu zan txirrindulari kadeteen Bizkaiko Kopako Igorreko lasterketea, Arratiako Ziklista Elkartek antolatuta. Ia 100 txirrindulari gazte urten ziran Garbetik, tartean 55 kilometro eginda, Zeanurira joan-etorri bi egiteko. Duranako Invitec-Iturribero taldeko Gaizka Lopez heldu zan lehena, atzen *sprint*-era heldu zan talde handiaren buru.

Leire Aurrekoetxea AZEko presidentearen esanetan, "oso pozik" dagoz antolatzaileak. Aurten, lasterketea ez da San Kristobal auzotik pasau, "arrisku gitxiagoko" proba bat planteau gura ebelako. Izan be, udan kadete askok ez ditue lasterketak amaituten eta aurten proposatutako ibilbidea hau ez gertatzeko egin zan: "Holan izan da, gehienek amaitu eta pilo bat heldu ziran *sprint*-era". Beste alde batetik, karrera arrastiz egitea Federazioaren, eta ez klubaren, ebatzia dala azpimarratu dau Aurrekoetxeak.

AZEko presidentek esker be-

reziak emon ditu antolakuntzarako aurkeztu ziran 50 boluntarioentzako. Bereziki lasterketea udan, arrastiz, beroagaz eta oporretan izanda. Gainera, pozik agertu da gazte barriak be egon ziralako. Laguntzaileen artean, arpegi ezagunak be egon ziran. Lehenengoz hiru txirrindulari profesional ohi batu ziran-ta: Iban Mayo, Joserra Uriarte eta Mikel Zarrabeitia. Horrezaz gain, Aurrekoetxeak gogorazau dau hurrengo zitea abenduaren 8an izango dala, nazinoarteko Igorreko Ziklo-krosa.

Arratiar txirrindulariak

Aurten Arratiako Ziklista Elkartek ez dau Bizkaiko Koparako talde propiorik aurkeztu. Halanda be, lasterketan egon ziran txirrindulari arratiarrak. Dromedario-Flotamet taldean berbarako, arratiarren arteko lehena egon zan hamalaugarren postuan, Markel Gorostizagoiza zeanuriztarra. F2 Informatika taldean barriz hiru igozretar egoazan: Peio Legina (26. postuan), Ekhi Atutxa (62.) eta Izei Zuluaga (amaitu barik).

HERRI-KIROLAK

Herri-kiroletako txapelketa ugari jokatu dira garagarrilean

Erredakzioa

Garagarrileko atzen astegoiena garrantzitsua izan da Jon Loiola, Irati Astondoa eta Ruth Linaza probalari arratiarrentzako, txapelketetan murgilduta egon dira-ta. Arratiara txapelik bueltan ekarri ez badabe be, marka onak lortu ditue eta bronzetzeko sari banagaz amaitu dabe.

Jon Loiolak Bizkaiko Lasto Jasotze Txapelketea jokatu eban Busturian eta min hartu ostean proba amaitu ez baeban be, hirugarren egin eban hamazazpi jasoaldigaz. Beñat Amade izan zan lehena 23 jasoaldigaz eta Xabat Erleagak hamazortzi egin ebazan. Dimoztarren atzetik, Bingen Erleaga egon zan hamaseigaz.

Irati Astondoak barriz, Andrazkoen III. Sega Sail Lehiaketea jokatu eban Altzon, binaka Malou Henrik-senegaz. Zeanuriztarrek eta danimarkarrak hirugarren postua lortu eben. Holan geratu zan sailkapena: Izadi Arrospe-Maide Garmendia

(14:57), Alaitz Imaz-Jugatx Agirre (15:22), Irati Astondoa-Malou Henriksen (16:09) eta Susana Lopez-Luixa Uzkudun (17:28).

Ruth Linaza lemoztarrak barriz, txapelketa bikotxa jokatu dau, oin gitxi ama izan bada be, gogoz ekinez. Arabako Zakulari Txapelketan laugarrena izan zan Sara Asenjo, Sara Jimenez de Aberastui eta Garbiñe Lopez de Uralderen atzetik. Arabako Lasto Jasotze Txapelketan barriz, holan geratu zan sailkapena: Garbiñe Lopez de Huralde (30 jasoaldi), Sara Asenjo (26) eta Ruth Linaza (18).

Sokatirea abuztuan

Abuztuan zehar, Bizkaiko Lur Gai-neko Sokatira Txapelketea jokatuko da eta jardunaldietako bi Arratian izango dira. Hilaren 18an, Igorren jokatuko da bigarren jardunaldia institutu alboko landetan, 17:30ean, eta hilaren 24an finala jokatuko da Diman, 17:30ean Arratiako Egoitza aurreko landan.

MENDI MARTXEA

Zabalik dago izen-emotea Areatzako Mendi Martxan

Erredakzioa

Lamino Kirol Klubak eta Areatzako Udalak antolatzen daben Areatzako Mendi Martxearen hamaikagarren edizioa urri bigarrenaren 5ean egingo da, uri inguruko antxinako bideetatik.

Goizeko 08:00retan urtengo dira martxa luzea eta laburra, bata 28 kilometro eta 1.500 metro desnibelduna, eta bestea, 21 kilometro eta 700 metroko desnibela daukana. Atzen hau Bikozganetik urtengo da, bertara autobusean joan ostean. Aurten ibilbide laburrago bat egiteko aukerea egongo da be, ibilbide familiarra. Atzen hau, 09:00etan urtengo da Areatzako plazatik, eta 14 kilometro eta 500 metro desnibel inguru eukiko dauz.

Izen-emotea, zabalik dago daborduko Areatzako Mendi Martxako

webgunean, <https://areatzakomartxa.blogspot.com>, rockthesport plataformearen bitartez. 18 euro edo 15 euro ordaindu behar dira (neurriaren arabera) eta bamean dagoz aseguru, horniketak, kamisetea, dutxa eta martxa amaierako horniketa berezia. Hamalau urtera arteko gaztetxoentzako prezioa barriz, 10 eurokoa da. Aurten be, igaz lez, ezin izango da izena martxearen egun berean emon. Izen-emotea, urri lehenengoaren 26a baino lehen egin



PELOTEA

Kaliforniako UnaWall Banakako Txapelketea irabazi dau Lur Ziarrustak

Erredakzioa


Lur Ziarrusta dimoztarra Campbell-en (Kalifornia) izan zan bagilaren 29an eta 30ean, bertako UnaWall one wall txapelketea jokatuten. Estatu Batuetan eskupelotearen modalidade ezaguna da one wall-a eta maila oneko jokalarien artean lehiatu zan. Halanda be, txapeldun urten zan banakako modalidadean eta binakakoan, txapelketako andra bakarra izan zan Naroa Agirre zestoarragaz lehiatu zan, saririk lortu ez baeben be.

Banaka, lehen partiduan 21-14 eta bigarrenan 21-16 irabazi eban. Finalurrekoan barriz, "bertokoei sorpresa handia emonda" irabazi eban, txapelketako bigarren faboritua zan Chava Cordovaren kontra 21-2 eginda. Finalean baina, faborito nagusiaren kontra egon

zan aurrez aurre, Manny Carvallo. Normalean 20 minuturen bueltan egoten dira partidua baina UnaWalleko finala "partidu oso gogorra izan zan, 45 minutukoa", Lur Ziarrustak azaldu dauanez. Dimoztarra aurretik joan, baina aurkariak ez eutsan irabazten itxi gura, halanda be, burruka luzearen ostean 21-20 irabazi eban Ziarrustak.

Munduko Txapelketara

Datorren txapelketea, Irlandako Limerich unibersidadean jokatuko dau Ziarrustak, Worl Wallball Championships 2024 Munduko Txapelketea. Mikel Beldarrain arteztarra be aurkeztuten da eta banaka zein binaka lehiatuko dira. Abuztuaren 18tik 23ra izango dira torneok eta urteko zitarik garrantzitsuena da onewall jokalarientzako.



behar da.

Antolatzaileek azaldu dabenez, martxako helburuak bardinak izaten jarraituko dabe: "Herrikoei eta herria ezetuten datozenei, lehen erabiltzen ziran bideak erakustea; bai eta mendi zein buzoi ezegunak". Izan be, atzen edizinoetan antxinako bide ugari zabaldu ditue. Bide horreetatik, Areatzako punturik altuenaren azpiko maldara helduko dira mendizaleak, 1.284 metrotara dagoan Arranobaltza puntara. Bertan Areatzako neberoa ikusteko aukera eukiko dabe. Horrezaz gainera, Upo, Urkidi eta Mendiganako tontorrek be zapalduko ditue.

Mendi martxea bakarrik ez, elektrotzaranga batek animauko dau eguerdi parte. Beste ekintzaren bat be antolatuteko idea daukie antolatzaileek.

PELOTEA

Plazandreak txapelketako finala jokatuko dau Aldaik

Erredakzioa

Abuztuaren 5ean Bilboko Esperantza frontoian egongo dira binakako partiduan Amaia Aldai eta Nora Mendizabal, Goiuri Zabaleta eta Enara Gaminderen kontra. Lau t'erdian barriz, Arrilaga eta Larrarte lehiatuko dira. Etb1-en eta *eitb.eus*-en ikusi ahal izango dira finalak.

Binakako finala ebazteko, atzen momentura arte itxaron behar izan da. Izan be, Aldai-Mendizabal eta Arrizabalaga-Capellan bikoteek puntu bana eukien, biek be galdutako partiduan 13 tantu lortu ebezan eta euren arteko norgehiagokari erreparau behar izan jako sailkapena egiteko. Lehen jardunaldian Aldai eta Mendizabal gemikarri eta errioxarrari gailendu jakienez, eurentzat izan da finalerako txartela.

Txapeldunordea sanferminetan

Garagarrilaren 13an Iruñako Labrit frontoian jokatu zan San Fermin Torneoako finala 1.000 ikusleren aurrean eta bertan egon zan Amaia Aldai, Uxue Osés bidelagun eukala. Txapelketa oparoa jokatu ostean, finalean gehiago izan ziran Aizane Ibarrola eta Enara Gaminde eta honeentzako izan zan txapela, 9-22 nasai bategaz irabazi eben eta.

PELOTEA

Bizkaiko LIV. Herriarteko Txapelketako zidarra Zeanuriko pelotarietzako

Garagarrilaren 6an Zornotzan jokatu zan berrogeta hamalagarren Bizkaiko Herriarteko Txapelketako finala. Zeanuriko pelotariak finalerako txartela lortuta, atzen urteetako favoritoak izan ebezan aurrez aurre, markinarrak.

Erredakzioa

Jokatutako hiru partidutik, bi izan ziran Markinakoentzat beraz, hirugarren urtez jarraian jaso eben txapela, txapelketa honetako euren bederatzigarrena.

Finala hiru partidutan jokatu zan eta lehenengo bietan izan ziran markinarrak irabazle, kadete eta jubenilen mailan. Lehenengoan, Liher Beobide eta Tasio Ozerinjaurigik 4-22 galdu eben Unax Arriabalaga eta Iker Otxoantzanaren aurka. Gero be, 4-22koa errepetidu zan Bingen Beitia eta Igor Egillor zeanuriztarren eta Mikel Egurrola eta Markel Calvoren artean.

Ordurako finala ebatzita eta jokoa ezer ez baegoan be, nagusien partidua izan zan



Zeanuriko pelotariak ezkerrean.

ikusgarriena. Honetan, Anton Erkiaga eta Beñat Etxeita zeanuriztarrek nagusitu ziran, 22-18ko

alde estuagaz, Josu Agirremalloa eta Alain Pujana markinarraren kontra.

PELOTEA

Xabier Rekaldek banakako hiru txapelketa nagusiak irabazi ditu aurten

Erredakzioa

Dimako Txumuluxueta Pelota Klubeko pelotaria dan Xabier Rekaldek gorakada itzela emon dau aurtengo kursoan. Hogeit urtegaz, buruz buruko pelotari afizionau onentsuena bihurtuta. Izan be, banaka jokatuten diran hiru txapelketa ofizial nagusiak irabazi ditu: Bizkaikoa, Federazioen artekoa (GRABNI) eta Euskal Herrikoa. Zornotzako Master Kaiolan be lor-

tu eban txapela eta Euskal Herriko binakakoan zein Mungian izan da azpitxapelduna, besteak beste.

Txumuluxueta klubeko Ekhi Ziarrustak BEGITURI azaldu deutso "gure inguruko pelotari afizionau potenteena" izan daitekela Rekalde: "Badira, bizpahiru urte pelotari berezia dala ikusten hasi ginala eta berak egindako behar guztia frutuak emoten hasi da, txapelketatik hasi eta goi mailako pelotari profesionalakaz entreneteraino".



begitu

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2024AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2024an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonia: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuota: 40€ 60€ 80€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

FILMA

Borja Kobeaga Arratian izan da *Los aitas* pelikularako grabetan

Igorreko institutuan eta Arteako gasolindegian grabau dira aita eta alaba izateko era desbardinak plazaratuten dituan *road movie*-ko eszena bana.

Erredakzioa

Borja Kobeaga zuzendari donostiarra film barri bat grabetan dabil, *Los aitas*, 2025ean argia ikusiko dauana. 1980ko hamarkadan girotuta dagoan komedia honetarako Bizkaiko hainbat tokitan egin dira grabaketak, tartean, Arratian. Arteako gasolindegian bagilaren 13an egon zan taldea grabetan eta gero, garagarrilaren 1ean, Igorreko Arratia BHI Institutuan.

"*Los aitas* komedia bat da, protagonistek Bilbotik Berlinera egiten daben bidaia bat, aita eta alabea izateko modu desbardi-nei buruz hausnartzeko balio dauana, umoretik eta samurtasunetik abiatuta. Autobuseko ibilbide horretan, gurasoak kon-turatzten dira beren mundua ez dala lehen zana, eta hazteko era-bili ebezan arauak aldatu egin

dirala. "Normala izateak" jada ez dauala ezer esan gura, azkar iraungitzen dan kontzeptu bat badago, normaltasuna dalako", inoan Borja Kobeaga zuzendari-ak grabaketen aurretik.

Sinopsia

80ko hamarkadaren amaierako

Bilboko langile auzo periferian, gimnasia erritmikoko haur talde batek Berlingo txapelketa batean parte hartzeko aukerea lortu dau. Amek ezin deusienez alabei bidaian lagundu, aitei egokitu jakie bidaiatzea, baina antza, ez dagoz oso interesauta bidaiagaz, kirol horregaz, ezta alabetaz be.



Los aitas pelikulearen fotograma bat.

ERAKUSKETEAK

Espeleologia Gorbeian erakusketea dakar Parketxeak abuztuan

Erredakzioa

Areatzan dagoan Gorbeia Parke Naturalaren Interpretazio Zentroan espeleologiari buruzko erakusketea egongo da ikusgai abuztu osoan zehar. Egunero egongo da ikusgai argazki eta azalpenak osotutako erakusketea, goizez 10:00etatik 14:00etara eta arrastiz 16:00etatik 18:00etara.

Erakusketan, Gorbeia Parke Natureko eremu karstikoetako egitura geologiko, kobazulo eta bertatik ibilitako espeleologoen argazki

ikusgarri ugari dagoz ikusleen gozamenerako. Horrez gain, honen deskribapenak eta kobetan topau daitezkean izaki zein egitura geologikoen azalpenak emoten dira euskeraz zein gaztelerez.

Beste alde batetik, hainbat panel informatibo dagoz. Batzuetan eremu karstiko bat zer dan eta kobazuloak zelan sortzean diran azalduten da. Besteetan espeleologia zer dan eta zertan datzan azalduten da; espeleologia egiten hasi gura dauan jentearantzako aholku etiko eta praktikoak be badagoz ikusgai.



MUSIKEA

Porco Bravo eta TOC, jaietako kartelburuak Zeberion



Porco Bravo taldea.

Erredakzioa

Abuztuaren 31n, zapatua, izango da Zeberio jaietako kontzertu gau garrantzitsuena. Chuleria, joder! taldeak zabalduko dau gaua eta Akerbeltz erromeriak zarratu, tartean Porco Bravo eta TOC talde ezagunek joko dabe.

Zeberio sandoniak abuztuaren 29tik urri lehenengoaren 2ra ospatuko dira. Zapatuan, hilak 31, egongo da gaueko jai giro nagusia izan be, lau kontzertu antolatu ditu Jai Batzordeak. Hasteko, bere lehen diska, *La Urbe*, aurten argirarau dauan Chuleria, joder!

ANTZERKIA

Orain Bi konpainiak *Mute* ikuskizuna taularatuko dau Zeanuriko jaietan

Erredakzioa

Abuztuaren 12an, astelehena, 19:30ean egongo da ikusgai familia osoarentzako umorezko zirku-antzerki ikuskizuna.

Sara Alvarez eta Rodrigo Lacasak osotuten daben Orain Bi konpainiak bere ikuskizun nagusia dakar Zeanuriko jaietara: *Mute*. 2022ko maiatzean Leioako Umore Azokan estreinau zan eta harrera zein kritika bikainak izan ostean, Euskadiko Ikuskizun Onenaren Saria jaso eban konpainiak antzezlanagaitik. "Une horretatik aurrera, birak egiten eta jentearren artean gozamina eta barrea sortzean hasi ginan gehien gustatzen jakuna eginaz, zirkua", dinoe konpainiaren webgunean.

Mute ikuskizuna mutazioaren gaineko antzezlan da. Holan dino obrearen sinopsiak: Mutatu aditzaren aginduzko singularreko hirugarren persona: persona, animalia edo gauza baten itxurea, izakerea, egoerea eta abar aldatzea. "...eta egun baten, iragana gure bizitzetara itzuli zan, eta sentiduten dogun guztiagaz topo eginarazo



euskun. Gure antzokian barriro alkar ikusi genduan, urteen joana erakusten eban hautsak guztia estaltzen eban, eta biziari barri horretara eraldatuta zirkuko gure ikuskizunak berbitzen genduzan bitartean, aldi berean gu be mutatzten ginala sentidutearen magia sortu zan". Mutazioa etenbako zozer da. Ez daitezala zomorroak bakarrik mutatu. Mutatu daiguzan egiturak, baita gu, personok be, aurrera egiten jarraitzeko, urrunago, gorago, helduteko; oindino eta gatxagoa dan horretara.

Momentura arte *Grooo!!!* (2011), *Porco Bravo* (2014), *La Piara* (2015) eta *Somos* (2021) diskoak argitaratu ditue. Baina duda barik, euren berezitasuna zuzeneko *show*-ak dira, ikuskizuna da kontzertua. "Zure subkontzientean ostatu hartu eta zure gaitasun psikomotorraz jaubetzer gator", dinoe taldearen webgunean.

TOC talde mungiarra barriz 2016an jaietako rock progresiboaren eta postpunk-aren bueltan dabilen taldea da eta atzen urtean ospe handia lortu dau euskal eszenan. Mikel Bilbao (bateria), Aitor Etxebarria (gitarra), Ander Goitia (bajua) eta Xabier Bilbao (ahotsa) dira taldekideak lehen egunetik. *Badau* (2019), *Zidazun* (2021) eta *Bat barik ez dauz bi* (2022) lanak autoekoitzi ditue. Musika sentikor eta indartsua egiten dabe eta *Zidazun* da horren erakusle. Gertakizun traumatiko batetik abiatuta, abestiek horren ondorengo etapa psikologiko desbardinak kontetan ditu-ta.

MUSIKEA

Aurora Beltran eta Xiberoots taldea izango dira Areatzako musika eskaintzearen plater nagusiak

Areatzako jaietan eskaintza musikal zabala egongo da, kalejiretatik hasita kontzertuetara arte. Kontzertuetaz bagabiz, bere ibilbidea Tahúres Zurdosegas hauspotu eban Aurora Beltran rock abeslari mitikoa eta Xiberoots reggae talde zuberotarra izango dira garrantzitsuenak.

Erredakzioa

Aurora Beltran hilaren 27an, 21:00etan urtengo da arkupeetako taula gainera. Xiberoots osterara, hilaren 30ean egongo da entzungai, 00:30ak aldera, ohol-tza nagusian.

Aurora Beltrán Gilak, rockeru nagusiak hurbilduko ditu Areatzara. Nafar abeslari honek, txikitatik dauka musikeagaz lotura estua. Gaixotasun bat zala-ta, ordu luzez geldi egon behar zan eta aitak oparitutako gitarreagaz topau eban zeregina. Oso gaztea izanda, Enrique Villareal "El Drogas"-egaz ibili zan tabernaz taberna kantari. Gero, 1980ko

hamarkada erdikaldean, Belladonna taldea sortu eban eta 1987an, Lolo anaiakaz batu zan Tahúres Zurdos taldea sortzeako. Hamazazpi urtetan, bederlatzi disko grabau ebezan, ospea lortuta.

Tahúres Zurdos deseginda, 2004an hasi eban bakarkako ibilbidea Beltranek. Bakarlari moduan, lan luze bi grabau ditu Aurora Records bere estudioan: *Clases de baile* (2008) eta *Usiana* (2017). Bere bakarkako bidean Rosendo, Barricada, Enrique Bunbury, Loquillo eta Carmen Paris moduko izen entzute-suak izan ditu alboan. Gainera, kolaborazioak egin ditu atzen urteetan Kutxi Romero, La Fuga,

Los Secretos, Amaral, Burning, Mago de Oz, Luz Casal, Porretas, Sinkope, Baron Rojo eta beste talde zein abeslari batzuekaz.

Xiberoots barriz, 2013an sortutako taldea da, "lagun artean reggae talde bat sortzeako" asmoagaz. Zuberotarrak dira Jon Etxekopar, Pette Jaragoihen, Jordi Foucher, Txomin Dhers, Antoine Stassinnet eta Jon Foucher taldekideak. Euren webgunean azalduten dabenez, "reggaea-



Aurora Beltran.

ri soinu tradizionalak nahastu, beat elektropop-ek ekarririk, basua funky eta transe bategaz eta 70eko giroagaz" egiten dabe musikea. Holan, hainbat single eta disko bi kaleratu ditue: *Mau-le muffin* (2018) eta *Honki jina* (2020).

Euskal Herria eta bere hizkuntzea dira Xiberoots taldearen "izatearen abiapuntua", defendiduten dabenez: "Idea euskera hedatzea da, reggae musikearen bitartez". Hau, euskerearen aldeko hainbat ekimenetan frogatu dabe. Berbarako, 2018an Basabürüako ikastolearen 40. urteurrena ospatzeko *eia* abestia argitaratu eban eta 2021ean, Herri Urratseko ereserkia izan zan *Baga Biga Boga* sortu eban, Anestesiako Andoni Basterretxeagaz batera.

MUSIKEA

Evaristo Paramosen taldeak joko dau Zeanuriko Andra Mari jaietan

Erredakzioa

Zeanuriko jaietako txupinazo eguna, abuztuak 10, izango da kontzertu gaua, 22:30etik aurrera. Hiru talde dagoz deituta, punk talde bi eta erromeria. Oholtzan lehena aurten bere lehen diskoa, *La Urbe*, argitaratu dauan Chuleria, joder! izango da. Gero Tropa do Carallo Evaristo Paramos-en atzen proiektua ikusteko aukerea egongo da. Amaitzeko, Gora Herria 2009an eratutako erromeria taldeak ipiniko dau plazea jantzan.

Tropa do Carallo taldea Evaristok eta Abel Murua baju-joleak sortu eban 2021ean, Gattillazo taldea desegin zanean. Biak be La Polla Records talde mitikoan puztu eban euren karrera. Jarraian batu jakiezan Tripi bateriagaz eta Alberto Salgado gitarreagaz. Talde barria bada be, eskarmentu handiko musikariak dira danak eta hiru urtetan disko bi argitaratu ditue: *Qué Hostias Andáis!* (2021) eta *Habrá que verlo* aurten argitaratua.

Zeberio
udala izakeraz

Zeberio Udalak eta jai batzordeak jai zoriontsuak opa deutsuez!

Ondo pasau sandonietan

ASESORÍA Gorbeialde

Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

Kili-Kili
Ampa eta Puñitubara

Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 63 61

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Behin dagoz jaitzen Behin dagoz proiektan

- Solmentan zein alokairuan
- Lurrik (erakutsia, landat, basat...)
- Eteak/izak (sua, baxenak, etak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Bolonarioak

Irakin berrik erakitzeko
Emakomak
ARKITEKTO-PROIEKTUAK

- Borne diseinua
- CEE eta IEE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Urdularrak Agirre 25, Lezoa - Iparr.
Agirretxe 14, 48101 Iruñe - Arbañeta
GIFARRI 10, 48101 Iruñe - Arbañeta
Bilboak 475, 48101 Iruñe - Arbañeta
arratia@arratia.com

Olaetxe
OPTIKA, LENTILAK

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gaiturua
- Begiak tentsinoko
- Lentilen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Arabatzen dugu herrikoia

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 428 78 15 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zinloan

2 urtetatik 18ra

AGENDA

**ABUZTUAK 1
AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

Urri lehenengoaren 26ra arte, Areatzako Mendi Martxarako izen-emotea zabalik <https://areatzakomartxa.blogspot.com> webgunean.

Speleologia Gorbeian erakusketea hile osoan zehar Parketxean. 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO
Hilaren 31ra arte, Gorbeia Nire txoko kuttuna Argazki Lehiaketea. Argazkiak Instagramera igon #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

BEDIA

Ludoteka zerbitzua zarratuta egongo da urri lehenengoaren 5era arte.

Liburutegi zerbitzua itxita urri lehenengoaren 5era arte.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Xartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

IGORRE

Abuztuan zarratuta egongo da liburutegia.

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

LEMOA

Abuztuan zarratuta egongo da liburutegia.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

Zemendiaren 10era arte, Lemoatx Trail mendi lasterketarako izen-emotea zabalik <https://www.buscametas.com/modulos/ticket/evento.php?codigo=1194> estekan.

**ZEANURI**

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik egunero 17:00etatik 19:00etara.

Abuztuaren 14an egingo dan herri bazkarirako izen-emotea Jubiladuen tabernan hilaren 7ra arte.

ZEBERIO

Liburutegiko udako ordutegia 11:00etatik 13:00etara.

**ABUZTUAK 3
AREATZA**

20:30ean, Paketengas taldearen rock kontzertua The Quiet Corner tabernan.
DIMA
Artaungo jaiak. 18:30ean, txupinazoa; 18:30, Lourdes Soraluze XV. Bola-joko Txapelketea; 20:00etan, txixi-burduntzia eta 22:00etan, erromeria Bilbao anaiakaz.

ZEANURI

San Justo jaiak. 14:30ean, auzo bazkaria eta 16:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.

ZEBERIO

San Adrian eguna. 12:30ean, mezea; ostean, kopaua.

**ABUZTUAK 4
DIMA**

Artaungo jaiak. 12:00etan, umeentzako jolasak; 18:00etan, herri-kirolerakustaldia (azkoran Irati Astondoa, Aitzol Atutxa eta Julen Larrea; lasto altxetan, botaten eta ingudean: Jon Loiola eta Tubi); 20:30ean, Tortilla Txapelketea; 21:00etan, Bilbao anai trikitaliak, mozorro erakusketea eta zozketea eta 22:30ean, txokolata.

ZEANURI

San Justo jaiak. 12:30ean, mezea; gero, barauskarria eta txistulariak; 14:00etan, Tortilla eta Paella Txapelketea; 17:30ean, andren bola-jokoa; gero, gizonen bola-jokoa.

**ABUZTUAK 5
UBIDE**

Arratiako Udalen Mankomunitateak


hondakin handiak batzeako izen-emotea udaletxean.

**ABUZTUAK 6
UBIDE**

Arratiako Udalen Mankomunitateko kamioia hondakin handiak batzera.

**ABUZTUAK 10
AREATZA**

20:30ean, Olatz Garcia-Ergüin Trio eta Miguel Salvador & Eric Surmenian-en kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**BEDIA**

San Lorentzo jaiak. 12:00etan, mezea Murtatzan; gero, barauskarria eta trikitaliak; 17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

**Abuztuaren 31ra arte parte hartu daiteke Gorbeia Nire Txoko Kuttuna Argazki Lehiaketan**

Gorbeialde Landa Garapen Alkarteak bigarren bez antolatu dau Gorbeia Nire Txoko Kuttuna Argazki Lehiaketea. begitu.eus-eko albisteetan topau daitekeen galdetegi bat bete eta bakotzak argazkiak igon ahal ditu norbere Instagramera #MiRinconFavorito, #GorbeiaEuskadi eta #CorazonVerdeDeEuskadi hastag-akaz.

Gorbeia Helmuga Turistikoaren barruko leku edota esperientziak erretratu behar dira lehiaketarako, Parke Naturalean edo Helmugea osotuten daben herrietan. Irabazleak 200 euro jasoko ditu eta bere argazkia promoziorako materialean erabiliko da. Bigarren saria, 100 eurokoa da. Argazki irabazleak gainera, Mi Rincón Favorito proiektuaren estatu mailako sarietan be parte hartuko dau. Honek dira estatu mailako sariak: 1. saria: 500 euro; 2. saria: 400 euro; 3. saria: 300 euro; 4. saria: 200 euro; 5. saria: 100 euro eta 10 akzesit-sari, 50 eurokoak.

LEMOA

Azurrekako jaiak. 12:30ean, mezea San Lontxon; 13:00etan, trikitaliek girotutako barauskarria; 13:30ean, erromeria eta 18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

ZEANURI

Zeanuriko Andra Mari jaiak hilaren 16ra arte. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa.

**ABUZTUAK 12
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Hilaren 23an eta 28an itxita.

**ABUZTUAK 15
DIMA**

Olazabalgo jaiak. Andra Mari eguna. 12:30ean, Txakoli Eguna: txakolina, pintxoak eta musika.

IGORRE

Udako Jaiak. Andra Mari Eguna. 12:30ean, mezea. Ostean, trikitalien kalejire; 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan; 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak Bidebarrin; 17:30ean, Igel Txapelketea Bidebarrin; 19:00etan, erromeria Berriztu taldeagaz Bidebarrin eta 19:30ean, txokolata.

**ABUZTUAK 16
BEDIA**

San Roke jaiak. 12:00etan, mezea San Roken, gero hamaiketako eta trikitaliak.

DIMA

Olazabalgo jaiak. San Roke eguna. 09:30ean, urtekerea Ilunbera; 12:00etan, meza nagusia; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea; 16:30ean, Umeen Bola Txapelketea eta jolasak; 17:30ean, bits jaia eta umeentzako baloiak; 19:00etan, Tortilla Txapelketea; 20:00etan, errifan zozketea eta txokolata eta 20:30ean, umorezko bakarriketea.

**ABUZTUAK 17
AREATZA**

20:30ean, Fer Zapa eta Kike Perez-en kontzertuak The Quiet Corner tabernan.

DIMA

Olazabalgo jaiak. San Roke Txiki eguna. 12:00etan, mezea eta 14:00etan, auzo bazkaria.

**ABUZTUAK 18
IGORRE**

Udako jaiak. 17:30ean, Bizkaiko

Lur Gaineko Sokatira Txapelketako bigarren jardunaldia Olabarriko landan.

**ABUZTUAK 19
LEMOA**

Urri lehenengoaren 7ko bertso-bazkarirako txartelen salmentea udaletxean, urri lehenengoaren 4ra arte. Amets Arzallus eta Aroa Arrizubieta. Helduek 16 euro eta umeek 10 euro.

**ABUZTUAK 23
AREATZA**

Areatzako San Bartolome jaiak hilaren 31ra arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**ABUZTUAK 24
DIMA**

17:30ean, Bizkaiko Lur Gaineko Sokatira Txapelketako finala Arratiako Egoitza ondoko landan.

IGORRE

Futboleko XXXVI. Igorre Saria Urbietan. 17:00etan, Arratia-Bermeo; 18:00etan, Bermeo-Aurrera de Vitoria; 19:00etan, Arratia-Aurrera de Vitoria eta 20:00etan, sari banaketea.

**ABUZTUAK 26
ARTEA**

Jaietako izen-emoteak zabalik urri lehenengoaren 3ra arte: herri bazkaria (udaletxean), herri afaria (5 euro Herriko Bentan eta Izar Zurian) eta Mozorro gaua (udaletxean).

**ABUZTUAK 29
ZEBERIO**

Zeberioko Sandoniak urri lehenengoaren 2ra arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**ABUZTUAK 30
AREATZA**

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa.

**URRI LEHENENGOAK 2
IGORRE**

Urri lehenengoan, Igorreko goiko frontoiaren estalkiaren inguruko informazioa eta bozkaketea Kultur Etxean.




GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Alkarren ondoan dagoan garaje bi alokatzen dira Igorreko Elexalde kaleko 47 zenbakian, On Egin-en ondoan. Biak batera ala banaka alokatu daitezke. Batera egin ezkeru prezioa egingo da. Interesdunek deitu 615 723 646 telefonora.

GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. Online klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

LANA

FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein taldeka. Frantses filologian graduatua. Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

KLASE PARTIKULARRAK EMON ETA UMEAK ZAINTEAN DODAZ

Lehen Hezkuntzako ingeles eta beste ikasgaietako eskola partikularrak emoten deutesdaz. C1 titulua daukat. Umeak jagoteko be prest nago. Interesdunek deitu: 650 842 292.

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrek adin eta maila guztiak eskolatzen emoten ditu, online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu 610 863 369 telefonora.

Zeozor saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1

Garena txakolinaren 3 botila.

Unai Santos (Igorre)



2

Areatza Musik & Beer jaialdiko antolakuntzeak emondako kamiseta bana.

Itziar Etxezarraga (Areatza)
Itsaso Bengoetxea (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
1976
BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
94 607 78 33
LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zikutzekutze@netmail.eus

Zeanuriko Udalak eta Jai Batzordeak

Jai
zoriontsuak
opa deutsuez!